

M<sup>a</sup> Luisa García  
Iñaki Azpitarte  
Javier del Campo  
Candido Hernández  
Marian Jauregui  
Paco Luna  
Raimundo Rubio  
Eva Blanco, (Idazkari teknikoa)

## **IRIZPENA 11/08**

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2011ko azaroaren 3ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek gehiengoz eman du ondoko irizpena: **EAEko Ikastetxe Publikoetako Haur eta Lehen Hezkuntzako, Helduen Hezkuntzako,**

**patronatuetoako eta EAEko lurralde ordezkarietzan kokatutako plazetako maisu-maistren Lanpostu Zerrendak onartzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

## **I. EDUKIA**

Dekretu proiektu honek 4 artikulua, 5 xedapen gehigarri eta bost eranskin ditu.

1. artikulua II.etik V.era bitarteko eranskinetan jasotako lanpostu zerrendak (LPZ) onartzen ditu.

2. artikulua I. Eranskinean zerrendatutako bi ikastetxeak bateratzen ditu.

3. artikulua irakasle ibiltariei buruzkoa da eta 4. artikulua lanpostu zerrenden hornikuntza-sistema zein izango den ezartzen du.

Xedapen gehigarriek soldaten osagarri orokorrak eta kargu eta erantzukizunen arabera esleitutakoak jasotzen dituzte.

## **II. PLANTILLEN ANALISIA**

Hizpide dugun **LPZ organikoak** aurreko ikasturtekoak baino 570 lanpostu gehiago dauzka. Hazkunde hori egin diren Lan Eskaintza Publiko guztien ondorioa da eta egonkortasun handiagoa ekarri du berekin. Dena den, lanpostuak sendotzen jarraitu behar da lekualdatze lehiaketan bidez.

Gorago aipatu plaza horietatik, 88 Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroetakoak dira eta nagusiki Ordezkarietzako Poltsetako plazak ugaritu dira (546 zehazki).

**1. taula Ikastetxeetako LPZ organikoetako maisu-maistren plazak (Bigarren Hezkuntzakoak izan ezik) jomuga ikastetxearen arabera. 2010-11 eta 2011-12 ikasturteak.**

<i>Jomugak</i>	2010-11	2011-12	$\Delta$ Azken ikasturtea
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako postuak (2. taula)	8.729	8.817	88
H.H.E. ikastetxeetako postuak	468	454	-14
Patronatuak	32	25	-7
Zereginen Ikaskuntza sekzioetako postuak	43	0	-43
Ordezkarizetako Poltsetako postuak (3. taula)	85	631	546
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.357</b>	<b>9.927</b>	<b>570</b>

*Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroetako LPZetan*, hauek dira gehien hazi diren espezialitateak: Lehen Hezkuntza (36), Haur Hezkuntza (17), Ingelesa (9), eta Entzumena eta Lengoaia (7). Gorputz Hezkuntza (2) eta Musika (1) berriz apur bat murriztu dira.

“Ikastetxeak konfiguratu beharreko postuak” izenburupean dauden plazak ere 20 gehiago izan dira aurten. Lanpostu horiek espezialitateen zerrendan edota aurrerago (4. taula) azaltzen diren plantilla osagarrien zerrendan sartzen ez diren funtzioak betetzen dituzte.

**2. Taula. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako maisu-maistren kidegoko LPZ organikoko espezialitateak. 2010-11 eta 2011-12 ikasturteak.**

	2010-11	1011-12	Azken ikasturteko aldaketa
Haur Hezkuntza	2.646	2.663	17
Lehen Hezkuntza	3.263	3.299	36
Euskara	30	30	0
Ingelesa	600	609	9
Frantsesa	1	1	0
Gorputz Hezkuntza	394	392	-2
Musika	311	310	-1
Aholkularia	279	281	2
Pedagogia Terapeutikoa (PTE)	568	568	0
Entzumena eta Lengoaia (ALE)	103	110	7
Ikastetxeak Konfiguratu Beharrekoak (CPC)	534	554	20
<b>LPZ organikoa guztira (EHAA argitaratua)</b>	<b>8.729</b>	<b>8.817</b>	<b>88</b>

Ikasturte honetan plantilla osagarri gisa existitzen ziren plaza asko Saileko LPZren aurrekontuan sartu dira, baina ez ikastetxe bakoitzeko LPZ ofizialetan. Hala, “*Ordezkarizetako Poltsak*” kontzeptuari atxiki zaizkio.

**3. Taula. Maisu-maistren kidegoko LPZ organikoko plantillaren banaketa “Ordezkaritzetako Poltsetan”. 2010-11 eta 2011-12 ikasturteak.**

	2010-11	2011-12
Laguntza baliabide bereziak	0	50
Kulturartekotasuna	0	15
Jangelako arduradunak	0	95
Hezkuntza marko hirueleduna (HMH)	0	12
Hizkuntza indargarrirako irakasleak (HII)	0	169
Administrazioan dauden irakasleak	1	1
Logopedak	74	74
Esperimentazio zentroak	10	10
Erljio irakasleak	0	205
Ordezkaritza Poltsetako LPZ guztira	85	631

Talde honetan, lehen aldiz sartu dira LPZn erlijio irakasleen 205 plazak, iragan uztailan Eusko Jaurlaritzari transferitu baitzitzaion irakasgai horren gaineko eskumena.

Bestalde, plantilla osagarriko plaza asko -hots, ikastetxeko LPZ ofizialean sartu gabe daudenak- organiko bihurtu dira “Ordezkaritza Poltsetan”. Hala, hizkuntza indargarrirako irakasleen 169 plaza, jangelako arduradunen 95 eta, besteak beste, laguntza baliabide berezietako 50 egonkortu egin dira.

Bestalde, *plantilla osagarrian* guztira 41 plaza gehiago sortu dira, 663tik 704ra igaro direlarik. Hauek dira talde ugariak: jangelako kudeaketan dihardutenak (guztira 195 plaza biltzen dituzte bi kontzeptutan); ikasle etorkinei hizkuntza indargarria emateko irakasleak (175) eta eskolaz kanpoko jardueretan dabiltzanak (160).

Gainerako laguntza baliabideak nagusiki kontzeptu hauetan sartzen dira: “LPZ zerrendako plaza osatu gabeak”, LPZn sartu gabeko Pedagogia Terapeutikoko irakasleak (PT), HIP (Hizkuntza indargarriko proiektua) eta Zulei.

**4. Taula. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako plantilla osagarriaren banaketa. 2010-11 eta 2011-12 ikasturteak.**

	2010-11	2011-12	Azken ikasturtea
Jangela - ikastetxea	170	160	-10
Jangela - poltsa	40	35	-5
Eskolaz kanpokoak	167	160	-7
Etorkinak (HIP)	137	175	38
HIPI	48	0	-48
Plaza osatu gabeen LPZ	30	68	38
PTE	27	32	5
Zulei	0	14	14
PRE	0	15	15
Kulturartekotasuna	15	0	-15
Beste batzuk	29	45	16
<b>Plantilla osagarria guztira</b>	<b>663</b>	<b>704</b>	<b>41</b>
Erlijio irakasleak*	205	205	0

(\*) Oro har osatu gabeko plazak direnez, ez dira sartzen plantilla osagarriaren batuketan ez 5. taulako ratioan.

Guztira, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako *plantilla osoetan* 129 plaza gehiago daude (%1,4) eta unitateak berriz 84 gehiago dira, hau da, proportzio berberean hazi dira (%1,4). Hala, ikasgelako irakasle ratioa ez da aldatu (1,68 kasu bietan).

Eta horietako ikasleen hazkundera (%2,8) ikasgelen hazkundera (%1,4) baino handiagoa da eta, beraz, ikasgelako ikasle ratioa ere handitu egin da; lehen 18,0 zen eta orain berriz 18,3. Era berean, irakasleko ikasle ratioa ere hazi egin da, 10,7tik 10,9ra pasatu delarik. Etapen araberako banaketa I. Eranskinean dago.

**5. Taula. Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako plantilla osoen bilakaera (1) unitateekin eta ikasleekin alderatuta. 2010-11 eta 2011-12 ikasturteak.**

		2010-11	2011-12	Azken ikasturtea	
Irakasleak	LPZ organikoa	8.729	8.817	88	%1,0
	Plantilla osagarria	663	704	41	%5,8
	Plantilla guztira	9.392	9.521	129	%1,4
Unitateak edo ikasgelak guztira		5.586	5.666	80	%1,4
Ikasleak guztira		100.720	103.508	2.788	%2,8
Irakasle / ikasle ratioa		1,68	1,68	0,00	%0,0
Ikasle / ikasgela ratioa		18,0	18,3	0,3	%1,3
Ikasle / irakasle ratioa		10,7	10,9	0,2	%1,4

(1) Irakasle guztiak sartzen dira, erlijioakoak izan ezik

LPZ organikoetako *plantillen euskalduntzeari* dagokionean, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan maila handia lortu da, irakasleen %95,7k baitauka 2HE eta kopuru hori gorantz doa gainera.

**Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako eta HH zentroetako plantilla organikoetan 2HE duten plazen portzentajea.**

	2010-11			2011-12			Azken ikasturtea
	2HErekin	Guztira	%2HE	2HErekin	Denera	%2HE	
Haur eta Lehen Hezkuntza	8.299	8.729	%95,1	8.441	8.817	%95,7	%0,7
HH	230	468	%49,1	229	454	%50,4	%1,3

HH zentroetako maisu-maistren kidegoko plantilla organikoaren euskalduntze maila askoz ere txikiagoa da (%50,4), nahiz eta %1,3 hazi den iazko ikasturtearekin alderatuta.

### III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

*Kontseiluak positiboki baloratzen du maisu-maistren LPZn 570 plaza gehiago sartu izana, horrek irakasleen egonkortasuna handituko baitu. Sailari eskatzen dio jarraitu dezala plantillen aurrekontuan ahalik eta plaza gehien sartzen.*

*Kontseiluaren iritziz, komenigarria litzateke ikastetxeetako LPZ organikoetan sortutako plaza horiek lekualdatze lehiaketetan eskaintzea, egonkortasunaren gaineko efektuak iraunkorrak izan daitezzen.*

Ikastetxeetako plantilla globalaren bilakaerari dagokionean eta Sailak emandako datuen arabera, plaza eta unitate hazkundeak proportzionalak izan dira eta horrek esan nahi du mantendu egiten dela ikasgelako irakasle ratioa. Aurrekontu murrizketari dagokionez, Kontseiluak ikusi du egonkortasun hau oso desberdina dela iazko ikasturteko egoerarekin alderatuta.

*Kontseiluak positiboki baloratzen du berriro hazi izana LPZn 2HEdun plazen portzentajea, guztira %95,7 baitira, eta aitortzen du bai irakasleek eta bai gainerako hezkuntza kolektiboek ahalegin handia egin dutela azken hamarkadetan gizartearen eskaerari erantzuteko.*

Erlijio irakasleak LPZn finkatzeari dagokionean, Kontseiluak badaki erreserbatutako 205 plazak ez datozela bat plaza osoekin, ez baitira guztiak behar irakasgaiaren eskaera estaltzeko.

*Ikusirik erlijio katolikoa irakasgaiaren eskaera etengabe jaisten doala eta jakin gabe zeintzuk diren transferentzia akordioaren terminoak, Kontseiluak uste du ez dela komeni aurrekontuko LPZn epe ertainera egonkorak izango liratekeenak baino plaza gehiago finkatzea.*

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2011ko azaroaren 4a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sinatua: Eva Blanco

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sinatua: M<sup>a</sup> Luisa García Gurrutxaga

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA  
SAILBURU ANDREA

**1. eranskina. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako unitateen eta ikasleen bilakaera etapaka. 2010-11 eta 2011-12 ikasturteak.**

		2010-11	2011-12	Azken ikasturtea	
Unitateak edo ikasgelak	Haur Hezkuntza, 2 urte	655	655	0	%0,0
	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	1.713	1.749	36	%2,1
	Lehen Hezkuntza	3.183	3.228	45	%1,4
	Hezkuntza Berezia, ikasgela itxiak	35	34	-1	-%2,9
	Unitateak guztira	5.586	5.666	80	%1,4
Ikasleak	Haur Hezkuntza, 2 urte	10.370	10.220	-150	-%1,4
	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	31.559	32.773	1.214	%3,8
	Lehen Hezkuntza	58.672	60.398	1.726	%2,9
	Hezkuntza Berezia, ikasgela itxiak	119	117	-2	-%1,7
	Ikasleak guztira	100.720	103.508	2.788	%2,8
Ikasle / ikasgela ratioa (1)		18,0	18,3	0,3	

(1) Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasgelako ikasle ratioa gehienez 23,7koa da, eta ratio hori Lehen Hezkuntzako ratio handienaren (25), Haur Hezkuntzako 2. zikloko ratioaren (23) eta 2 urteko mailaren (18) arteko batez bestekoaren emaitza da.

## **BOTO PARTIKULARRA:**

Ez gaudenez ados Euskadiko Eskola Kontseiluak 2011ko azaroaren 3an Maisu-Maistren Kidegoko plantillei eta Bigarren Hezkuntzako plantillei buruz igorri dituen bi irizpenekin, bi testu horiei buruzko BOTO PARTIKULARRA igortzen dugu:

*Gure kezka adierazi nahi dugu, bigarren urtez jarraian plantilla ez delako hazi ikasle kopurua hazi den proportzio berean: hala, Lehen Hezkuntzan ikasleak %3,1 hazi dira, baina irakasle kopurua %1,4 baino ez; Bigarren Hezkuntzan ikasleen hazkundera %2,5ekoa izan da eta irakasle plantilla berriz %0,6 baino ez da hazi. Gure ustez, luzaroan dirauen dinamika honek hezkuntza publikoa pobretzen du, eta ez dio uzten aurrez aurre dituen erronka handiei aurre egiten. Horregatik, Hezkuntza Sailari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diegu aurrekontuetan ahalegina egin dezatela Europak hezkuntzan egiten duen batez besteko gastura hurbiltzeko –beti ere ELGAko erreferentziazko adierazlearen arabera-, hau da, hezkuntzako gastu publikora bideratzen den BPGaren portzentajea handitzeko.*

2011-11-03      STEE-EILAS